

Euskal Herriko 100 herri hondamendi eremu

Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako herrietan izandako uholde larrien ondoren, kalte-ordainak jasotzeko bide gorabeheratsuari ekin diote erakundeek, herritarrek eta laborariek.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

UHOLDEEN KALTEEI aurre egiteko, Frantziako Ministro Kontseiluak hondamendi natural izendapen lasterra ezarri du Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko 102 herrietan. Prozesura horrekin, diru-laguntzak lehenbailehen jasotzea espero da.

Uztailaren 3an euriteek egoera larrian utzi zituzten Nafarroa Beherea, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroako hainbat herri. Arhantusun 84 urteko gizon bat hil zen urak eramanda. Ura etxe askotan sartu zen eta Baigorri eta Donibane Garazi artean zenbait lagun teiltuetatik atera behar izan zituzten. Telefono lineak, elektrizitatea eta errepede ugari ere moztu zituzten uholdeek.

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak 10,2 milioi euroko laguntza onartu du Baionan egindako batzar berezian. Bost milioi izango dira bideak eta zubiak konpontzeko, lau milioi eraikin publi-



JOANES ETXEBARRIA

Mauleko etxalde bat urak harrapatuta. Hainbat herritako azienda Baionako bokaleraino eraman zuen Aturrik uztailaren 4an.

koentzat eta beste milioi bat elkartasun funtsera joango da. Horrez gain, 200.000 euro bideratu ditu bereziki kaltetuak izan diren pertsonak laguntzeko.

Laborarien zorigaitza

“Laborantza zorigaitza” izendapena lortzeko lanean ari da Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganbara, baina horrek denbora beharko du. Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbarak izendapen horretatik etor daitezkeen laguntza gehigarrien premia azpimarratu du. Zenbait aditu uholdeek harrapatutako etxaldeak bisitatzen izan dira eta telefono zenbaki bat ere jarri dute martxan.

Mixel Larralde Donaixtiko auzapezak egoera “biziki makur” zela azaldu zion uholdeen biharamunean Irulegiko Irratiari –herritarren testigantzak biltzen aritu zen hedabide bakarrenetakoa–.

Larralderen esanetan etxalderen batek “ardi tropa guztia” ere galdu zuen herri horretan. ■



4 milioi euro Baztanen eta Luzaiden

NAFARROAKO GOBERNUAK lau milioi eurotik gorako kalteak zenbatu ditu Baztaneko eta Luzaideko inguruetan. Azpiegitura-kalteak konpontzeko 1,6 milioi beharko dira eta Tokiko Inbertsio Planaren bidez egingo dira konponketa-lanak.

Madrilek legea aldatu zuenetik hondamendi-eremu izendatzea ez da posible, eta horren ordez, Espainiako Gobernuak diru-laguntzak banatzen ditu egun. Nafarroako Gobernuak aparteko diru-laguntzak jasotzeko eskaera egingo dio Espainiakori. Baztanen hamahiru zubi hondatu ditu errekek eta hornikuntza eta saneamendu sareak ere konpondu behar dira. Luzaiden, berriz, gutxienez 500.000 euro beharko dituzte euriteek puskatutako harri-lubetak eta bideak konpontzeko.